

Jainkoa izan nahi
zuen autobus-
gidariaren istorioa
eta beste batzuk

Etgar Keret

ITZIAR OTEGIK *itzulia*



Jatorriko izenburua:
HaKaitaná shel Kneller

Itzulpena ingelesetik egina da.
Izenburua: *Kneller's Happy Campers*

© Egar Keret, 1998

Worldwide translation copyright © by
The Institute for the Translation of Hebrew Literature

© itzulpen honena, 2013, Itziar Otegi

© argitalpen honena, 2013, Pasazaitel liburuak

Harrobieta enparantza 12
20017 Donostia - Gipuzkoa
www.pasazaitel.com
liburuak@pasazaitel.com

Maketazioa: Astidiseinua
Sailaren diseinua: La Personnalité

ISBN: 978-84-940331-3-1
Legezko gordailua: SS-75-2013

Inprimatzailea: Leitzaran grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain-Gipuzkoa

Jainkoa izan nahi zuen autobus- gidariaren istorioa



Hona hemen berandu heltzen zirenei sekula atea irekitzen ez zien autobus-gidariaren istorioa. Berandu heldutako inortxori ere ez zion atea irekitzen. Ez institutuko nerabe uzkurrei, autobusaren parean korri eginez arkume-begi tristeeekin begiraten bazioten ere; ez, inolaz ere, anorak lodiz jantzitako ipurterreei, atea ukabilaz jotzen bazuten ere, haiek garaiz iritsi eta autobus-gidaria arrastotik kanpo harrapatu balute bezala; ezta paperezko poltsa marroiak

janariz beteta zeramatzaten amona xaharrei ere, esku dardaratiz gelditzeko keinu nekezak egiten zizkioten arren. Ez zuen gaiztakeriagatik egiten, autobus-gidari hark ez baitzuen gaiztotik pizar bat ere. Ez, ideologia-kontua zen. Autobus-gidariaren ideologiaren arabera, berandu zetorren norbaiti atea irekitzeak hortxe hogeita hamar segundoko atzerapena eragiten zuen, baiki; atea ez irekitzeak, berriz, pertsona horrek bere bizitzako hamabost minutu galtzea zekarren. Gizartearentzat bidezkoagoa zen, horrenbestez, atea ez irekitzea, zeren eta, bestela, autobusean zihoazen bidaiari guzti-guztiek galduko baitzituzten hogeita hamar segundo. Demagun, esate baterako, hirurogei pertsona doazela autobusean, ezertan hutsik egin gabeak eta autobus-geltokira garaiz iritsiak; bada, orduan, denen artean ordu erdi bat galduko lukete, hau da, hamabost minutu bi bider. Huraxe zen atea ez irekitzeko arrazoi bakarra. Bazekien jendeak ez zuela arrastorik ere zergatiari buruz, ezta autobusaren atzetik korrika joan eta gelditzeko keinua egiten ziotenek ere. Bazekien, ondo jakin ere, babo ergeltzat jotzen zutela gehienek, eta, berez, askoz errazagoa litzaiokeela pertsona haiei igotzen uztea, eta irribarreak eta esker onak jasotzea. Gure autobus-gidariak, ordea, garbi zeukan ez zirela irribarreak eta esker ona hautatu behar gizartearen onuraren kaltetan.

Autobus-gidariaren ideologia zela-eta gehien sufritzen zuen pertsonak Edi zuen izena, baina, istorio honetako beste pertsonak ez bezala, Edi ez zen saiatu ere egiten autobusaren atzetik laster egiten, hainbestearino zen alferra eta erremediorik gabea. Edi sukaldari-laguntzaile zen Behi-bi erretegian —pentsa: huraxe zen jatetxearen jabe ergelak asmatzea lortu zuen hitz-jokorik hobere-

na—. Erretegi hartako janaria ez zen apartekoa, baina Edi bera oso tipo atsegina zen: batzuetan, jakiren bat oso ondo ateratzen ez zitzaionean, berak zerbitzatzen zuen mahaira, eta barkamena eskatzen. Hain zuzen ere, desenkusa haietako batean ezagutu zuen Zorion, edo, behintzat, Zorion lortzeko aukera bat. Oso neska atsegina zen Zorion: Edik eraman zion rosbif zati osoa jaten saiatu zen, tristatu ez zedin. Neskak ez zion esan nahi nola zuen izena, ezta telefono-zenbakia eman ere, baina biharamunean bostetan bien artean adostutako leku batean —Izurdeen Jauregian, hain zuzen— elkartzea onartzeko bezain atsegina izan zen.

Edik, ordea, bazuen gaitz bat, ordurako bizitzan mota guztietako galerak eragin zizkiona. Ez zen gongoilak handi-handi eginda uzten dizkizuten gaitz horietako bat, ezta antzekorik ere, baina, hala ere, kalte latzak eragin zizkion. Gaixotasun horren erruz, beti hamar minutu berandu esnatzen zen Edi, eta ez zegoen iratzargailurik horren aurka ezer egin zezakeenik. Horregatik iristen zen beti berandu Behi-bi erretegiara. Horregatik, eta are gure autobus-gidariarengatik, berari zuzendutako laudorioen eta esker oneko hitzen gainetik gizartearen onura hobesten zuen hargatik. Harako hartan, ordea, Zorion zegoenez jokoan, gaitzari aurre egitea erabaki zuen Edik, eta, bazkalondoan, ohiko lo-kuluxka bota beharrean, esna gelditu zen telebistari begira. Segurutik jotzeko, iratzargailu bakarraren ordeztatu hiru prestatu zituen, bata bestearen ondoan, eta telefono bidezko iratzartze-zerbitzu bat ere enkargatu zuen. Gaitz hura, ordea, sendaezina zen, eta haur bat balitz bezala lokartu zen Edi, Txikitxuen Kateari so. Izerditan blai esnatu zen, elementia bat iratzargailuren kirrinka betearen erdian... beti bezala hamar minutu be-

randu. Itsumustuan atera zen etxetik, arropaz aldatzeko denborarik ere hartu gabe, eta laster batean abiatu zen autobus-geltokirantz. Ia ahaztua zuen nola korri egin, eta oinak pixka bat nahasi egiten zitzaizkion espaloitik altxatzen ziren bakoitzean. Korrika egin gabea zen soinketako eskolan piper egin zezakeela konturatu zenetik, eta hori hortxe seigarren mailan-edo izango zen. Oraingoan, ordea, ero baten moduan ari zen korrika, orduan ez bezala orain bazuelako zer galdua, eta ez bularreko oinazea, ez Noblesse zigarro merkeen erruz birikek jotzen zioten txistua, ez ziren oztopo izango Zorion Atzemateko Xerka hartan. Ezer ez zen oztopo izango Ediren bidean, gure autobus-gidaria salbu. Izan ere, itxi berria zuen atea, eta geltokitik abiatzen hasia zen. Gidariak atzerako ispilutik ikusi zuen Edi, baina, dagoeneko azaldu dugunez, gidari hark bazuen ideologia bat, ondo arrazoitua, beste ezertan baino gehiago justiziaren amorean eta aritmetika soilean oinarritzen zena. Ediri, ordea, ez zitzaion piperrik ere axola gidariaren aritmetika. Bizitzan estreinako aldiz, zinez iritsi nahi zuen garaiz leku batera. Eta horregatik jarraitu zuen autobusaren atzetik korrika, alferrik bazen ere. Bat-batean, Ediren zoria irauli egin zen, baina erdizka bakarrik: autobus-geltokitik ehun bat metrora semaforo bat zegoen, eta, autobusa bertara iritsi baino segundo bat lehenago, argi gorria piztu zen. Edik lortu zuen autobusaren parera iristea, eta bere burua gidariaren ate aurrera herrestan eramatea. Atea jo ere ez zuen egin, ordea, hain zegoen akituta. Begi umelekin gidariari begiratu besterik ez zuen egin, eta belauen gainera erori zen, arnastetuka, birikak txistetuka zituela. Horrek zerbait ekarri zion gogora autobus-gidariari, iragan urruneko zerbait, autobus-gidari bihurtu nahi izan zuen garaia baino lehenagokoa, Jainko